

Prentsa oharra

Nota de prensa



HONDARTZA DENBORALDI LASAIA ETA BATEZ BESTEKO JENDETZA

Amaitu berri den hondartzen denboraldia meteorologiak markatu du; izan ere, eguraldiaren zati handi bat baldintzatu egin du, eta, beraz, denboraldia batez besteko jende-kopurutzat jotzen da hilabete guztietan.

Hondartzen profila ona izan da. Denboraldia hasi aurretik, hondarra mugitu zen hondartzetarako sarbideetan eta kabina eta komunen zerbitzuetan, erabiltzaileen joan-etorria errazteko, eta soberako hondarra hondartzan zehar banatu zen. Zurriolako zokaloa hondarra mugitu ez zuten olatu handien faltagatik gertatu zen, baina irailean egoera normalizatu egin zen.

Miguel Angel Diezek, Hiri Mantenimenduko zinegotziak, "alga *ostreopsis siamensis* delakoaren gertakaria" ekarri du gogora, izan ere, temperatura altuengatik ugaldtu zen eta ez zuen kalte sanitario garrantzitsurik eragin, azaleko azkura txiki batzuk izan ezik".

Prentsa oharra

Nota de prensa



GARBIKETA ETA HONDAKINEN BILKETA

Garbiketari dagokionez, hondartzetatik kendutako bolumenak gora egin du iazko datuekin alderatuta. 234.570 kilo zabor jaso dira, eta iaz 191.300 kilo. Birziklatu beharreko sektoreen arabera, bikoiztu egin da beiraren bilketa (1088 kilo, aurreko urteko 535en aldean), erdira murriztu da plastikoa (24.160 eta 2020ko 49.620), biderkatu egin da paperaren gaikako bilketa (1.487 kilo eta iaz 266 kilo), materia organikoari dagokionez, aurreko denboraldiko mailei eutsi zaie (657 kilo eta 732 kilo, hurrenez hurren), eta lehen aldiz, 15 kilo bildu dira. Flotatzaileei dagokienez, 1.368 kilo kendu dituzte uretatik, iaz 421 kilo izan ziren hondartzetan.

Aipatu behar da 25 langile ere saiatu direla denboraldian zehar hondartzak garbi edukitzen, 10 ibilgailurekin, bahetzaileetatik, traktoreetatik edo badian agertzen diren flotatzaileak erretiratzeko dituen ontzitik.

"Aurten, erabilera bakarrekoko plastikozko ontziak biltzeko Zero plastik kanpainaren barruan, edukiontzi bat jarri da Sagues inguruan, eta hondartzetako tabernek botila itzulgarriak eskaini dituzte, ontzien ugaritzea saihesteko", nabarmendu du Diezek.

SALBAMENDUA ETA SOROSPENA

Guztira 1.132 osasun-asistentzia erregistratu dira, iaz 1.243 izan ziren, eta kasu gehien Ondarreta hondartzan eta Uhartean zenbatu dira (509).

123 erreskate izan dira, iaz baino 11 gehiago, 103 ebakuazio egin dira (59 2020an), 105 pertsona galdu dira, 2020an baino zazpi gutxiago, eta 390 erabiltzaile batu dira anfibio-ibilgailuarekin lagundutako bainuan, aurreko urtean baino 25 gutxiago. 101 pertsonak eskatu dute makuluen zerbitzua sorospentuetan.

KABINA KOLEKTIBOAK

Osasun-hobekuntzaren aurrerapenak eta bisitarien etorrerak kabina-zerbitzuetan ere izan dute eragina; izan ere, beste urte batez, dutxetara eta txarteldegietara mugatu dituzte zerbitzuak.

Horrela, Kontxako hondartzan zerbitzuak hirukoiztu egin dira 16.932 zerbitzurekin, iaz 4.989 izan ziren bitartean. Iaz, osasun arloko segurtasun neurriengatik ez zen 5.240 erabilera izan dituen kontsignarik izan. Hondartza honetan aulkiak alokatzeko gutxieneko zerbitzu bat mantendu da, 3.178 erabilerarekin.

Prensa oharra

Nota de prensa



Ondarretan, 15.369 erabiltzaile izan ditu kabina kolektiboak, eta iaz, 2.094. Kontsigna zerbitzua 2.269 erabilerekin itzuli da. Zurriolako hondartzan, 4.601 erabilera izan dituzte kabina kolektiboek eta 686 kontsignek.

TXAKURRAK

Denboraldia amaitzerako, txakurrak urriaren 1etik maiatzaren 30era arte sar daitezke hondartzetan. Hori bai, Gizalegearen Ordenantzan oinarrituta, jabeek gorozkiak kendu beharko dituzte, bide publikoan bezala, eta, bestela, 200 eurorainoko isuna jaso ahal izango dute.